

BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2013

BASQUE LV2

SÉRIE L	Durée : 3 heures	Coefficient : 4
SÉRIE ES et S	Durée : 2 heures	Coefficient : 2
SÉRIE STG option C.G.R.H.	Durée : 2 heures	Coefficient : 3
SÉRIE STG option Mercatique et C.F.E.	Durée : 2 heures	Coefficient : 2
SÉRIE STG option G.S.I.	Durée : 2 heures	Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

Barème appliqué pour la correction.

Compréhension du texte	<i>10 points</i>
Expression personnelle	<i>10 points</i>

Dès que le sujet est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 3 pages numérotées de 1/3 à 3/3.

Duela aspaldi itsasoan itota hil zen Martxelo bere osaba mariñel baten koaderno bat eskaini dio amonak narratzaileari.

Hegazkinez heldu nintzen Londonera, nire ingeles kaskarra hobetzeko asmotan. Halaxe uste nuen nik, behintzat. Baina bidaia haren sakoneko arrazoia Martxeloren ohar misterioitsu bati buruz jakin nahia zen, ordea, hegazkinean neure buruari aitortu nion bezala. Airetik itsasoa ikusi nuenean konturatu nintzen, eta, noski, nire ametsa itsasontziz

5 egitea izan zitakeela jakin nuen. Tamalez, Pride of Bilbao izeneko itsasontzi haren prezioak hegazkina baino altuago zebiltzan. (...)
Regent Street izeneko kalera iristea ez zitzaidan batere kostatu. Izan ere, hiriko kale nagusietako bat da eta Trafalgar Squaren amaitzen da. Hantxe dago Nelson almirantearen estatua, halako haga moduko baten erpinean, XIX. mendean itsasoan egin

10 zen batailarik handienaren oroigarri. (...)
Kostatu zitzaidan aldiz Simons Sea-Books hura aurkitzea. Eta ez begi bistan ez zegoelako, liburudenda izandako hartan beste mota bateko denda bat zegoelako baizik : jantzidenda bat.

- kaka zaharra ! esan nuen ahapeka.

15 Ate aurrean egon nintzen, luzaroan, ez aurrera eta ez atzera, geldi. Adi-adi nengoela irudituko zitzaien han ikusi nindutenei, ziur. Ez zen hala, ordea. Ez nengoen ezeri begiratzen, zur eta lur eginda baizik. Ikusi gabe begiratzen nuen, aurrean zer nuen ere jakin gabe.

Halako batean, nire begiek barruko zerbitzaria ikusi zuten. Arabiarra zen, itxuraz. 20 Beltzarana zen eta begiak disdiratsu eta betazpiak oso markaturik zituen. Magrebeko gizon gaztetzat jo nuen. Katxidiablo etorri zitzaidan gogora. Praka beltz batzuk erosi behar nituela erabaki nuen. Eta halaxe sartu nintzen dendan.

Nire ingelesa eskasa da, oso eskasa. Harena nirea baino hobe zen, baina, hala ere, mihigainak irrist egiten zion eta hasierako hitzetan «h» nabaritzen zitzaion. Hiri berean 25 arrotz diren biren artean sarritan sortu ohi den elkarrenganako bibrazio positibo hori sortu bide zen gure artean. Nik prakak probatu, pozezko yes bat esan, eta berak prakak poltsa batean sartzen zituelarik, ingelesez galdetu zidan :

- Where are you from ?

- Basque country, erantzun nion

30 - Te bat hartuko al zenuke nirekin ? gonbidatu zidan ingelesez

Edorta Jimenez, Urdaibaiko ipuin eta kondairak, 1996

I. ULERMENA : (10 puntu)

S eta STG sailetako kandidatuek ez dute 6° galdera egiten.

Les candidats des séries S et STG ne répondent pas à la question 6.

1. Zer da narratzailearen bidaiaren sakoneko arrazoia ? (L2-S,ST2)
2. Nondik dator narratzailea eta nora iritsi da ? (L1-S,ST1)
3. Nola bidaiatu da narratzailea ? Zergatik ? (L1p-S,ST2)
4. Zer bilatzen du narratzaileak kale horretan ? Zer aurkitzen du ? (L2-S,ST2)
5. Zein aitzaki aurkitzen du dendara sartzeko ? (L1-S,ST1)
6. Zer uste du narratzaileak dendariaren jatorriaz eta hizkeraz ? (L1)
7. Nolako giroa dago bi protagonisten artean ? Zergatik ? (L2-S,ST2)

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

S eta STG sailetakoek lehen eta bigarren galderei erantzunen diete

Les candidats des séries S et STG répondront à la 1e et à la 2e question

L sailekoek lehen eta hirugarren galderei erantzunen diete

Les candidats de la série L répondront à la 1e et à la 3e question

1. Batzuei, narratzaileari bezala, kultura ezberdinetako pertsonakilako harremanak gustatzen zaizkie. Beste batzuek aldiz ez dute batere horren axolarik. Eta zuk, zer diozu horretaz ? (L5-S,ST5)
2. Narrazio zati honen jarraipena asmazazu, protagonista nagusiaren bidaiaren helburua konduan hartuz. (S,ST5)
3. Euskaldunek itsasoarekilako harreman hertsia ukan ohi dute. Zer dakizu horretaz ? (L5)